

AIZKORA. Nafarrak urteko bigarren txapel garrantzitsua jantzi du Donostian, Urrezko Aizkora irabazi ondoren

Koldo Alduntzin | **DONOSTIA**

Hemeretzigarren Urrezko Kopan lortu du Donato Larretxea nafarrak bere laugarrena irabaztea, bost urte ondoren. Izan ere, 1997an irabazi zuen azken aldiz Kopa, 29 minutu eta 22 segundorekin, eta, atzo, 19 segundoko gutxiago behar izan zituen 14 kanaerdikoak ebakitzeko. Hala ere, aski urrun geratu zen txapelketako markatik, minutu bat eta 46 segundora hain justu. Marka hori, gainera, Larretxeak berak lortu zuen 1995ean: 27 minutu eta 17 segundo.

«Egur eutsiak ziren, ematekoak, alegia; bestela, marka ontzeko moduan nengoen», azaldu zuen Arantzakoak saioaren amaieran. Iazko Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko lehen lau sailkatuek jardun zuten lehian: Olasagastik, Larretxeak, Peña-garikanok eta Nazabalek. Trinitate plaza bete egin zen, eta egurrak Olasagastik plazaratu zituen. Lau aizkolarien arabera, gogor samarrak.

Azken bi urteetan Peñagarikano Beizamakoak irabazi zuen Kopa, baina artekariak Larretxea jo zuten garailatzat hastapenetik, eta baita asmatu ere. Aurreneko kanaerdikoa Peñagarikanok bota zuen (1'15"). Olasagastik eta Larretxeak parean, eta Nazabalek arazoak izan zituen, bira eman behar izan zuelarik.

Larretxeak 11. enborrean lortu zuen alde erabakigarria

Laugarren egurra ebakita antzeman zen Larretxea eta Peñagarikanoren artean egongo zela lehia nagusia. Lanerdiak arte Peñagarikano aritu zen aurretik, seigarren kanaerdikoan izan ezik; hori, parean ebaki baitzuten. Hain justu, zortzigarren en-



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Donato Larretxeak ez zuen Urrezko Kopa irabazi 1997. urteaz geroztik, eta atzo biziki ospatu zuen.

Larretxearentzat Urrezko Kopa, bost urte geroago

Txapela kendu dio Peñagarikanori, 2 minutu eta 7 segundoko aldeaz

borrean lortu zuen nafarrak aurrea hartzea lehen aldiz, 14 segundoko aldea aterata.

Handik aitzin, Larretxeak agindu zuen lehian, pixkanaka aldea areagotu zuelarik. Azkenean, 2 minutu eta 7 segundoko aldeaz gailendu zen. «Hiruzpau egur falta zirela nekatu samar sumatu dut Peñagarikano, eta garaipena eskura ikusi dut», esan zuen Larretxeak. Bost urte irabazi gabe igaro zituela gogorazarazita, «bai, garai txarrak pa-

SAILKAPENA

AIZKOLARIA	LANERDIAK	DENBORA
1. Larretxea	13'24"	29'03"
2. Peñagarikano	13'18"	31'10"
3. Nazabal	14'15"	32'15"
4. Olasagasti	15'20"	39'21"

satu nituen, eta kosta zait sasoi-ko jartzea», erantzun zuen.

Peñagarikano txapeldun ohiak, berriz, «bi enbor aski eutsiak izan ditut, eta horietan denbora galdu dut. Gero, La-

retxea aurrera zihoala ohartu naiz, eta amore eman dut». Nazabal ere argi mintzo zen: «Lehen egurra oso txarra suertatu zait, eta besteetan ere, adar dezente aurkitu dut. Hala ere, ez nago sasoirik onenean tamaina honetako lana egiteko».

Olasagasti 4. egurrean hasi zen atzeratzen, nabarmen, eta haxe aitortu zuen: «Urrezko Aizkoraren ondoren desmoralizatuta geratu nintzen, eta ez naiz behar bezala prestatu».

GERNIKA-LUMON

Larretxea eta Olasagasti garaile

Arratsaldeko Urrezko Kopa jokatu aitzin, izerdi franko ateratu zuten Joxemari Olasagastik, Donato Larretxeak eta Floren Nazabalek, eguerdian, Gernika-Lumon (Bizkaia). Horiekin hiruarekin, Miel Mindegia aritu zen. Bibitako II. Gernika Aizkora Txapelketa jokatu zuten, eta, hiru proba jokatu ondoren, Olasagasti-Larretxea bikoak gailendu, 9 punturekin.

Nazabal-Mindegia bikoak, berriz, 2 puntu lortu zituen. Proba bakoitzak bere puntuaketa izan zuen, Urrezko Aizkoran egin zuten bezala. Hala, 80 ontzako enborra ebakitzen, Larretxea-Olasagasti gailendu zen (2'11"), eta bi puntu bildu zituzten. Mindegia-Nazabalek 16 segundo gehiago behar izan zituzten. Bigarren proba buruz buruko izan zen, kanaerdiko bat ebakitzera. Larretxeak 2 puntu bildu zituen, eta Nazabalek eta Mindeak puntu bana. Beraz, 4 punturekin jarri ziren sailkapeneko buru Larretxea eta Olasagasti, eta 2 punturekin Nazabal eta Mindegia. Hirugarren proban, txanda librean aritu ziren bi bikoak zortzi enborrera, tartean oinbiko bat zutela. Lanerdietan bi segundoko aldea zuten Olasagastik eta Larretxeak, eta amaieran, 18 segundoko aldea lortu zuten, lana 12 minutu eta 46 segundotan amaituta. Kontrarioek, berriz, 13 minutu eta 4 segundo behar izan zituzten.

HARRI-JASOTZEA. Gipuzkoarrak iaz baino lau jasoaldi gutxiago egin ditu, eta anaia Jexuxmariri sei jasoaldiko aldea ateratu dio

Izeta II.ak eraman du harri txikietako Mallabiko Saria, hirugarren urtez errenkadan

K. Alduntzin | **DONOSTIA**

Mallabiko Saria hirugarren aldiz errenkadan irabazi arren, Joxerramon Iruretagoienea *Izeta II.ak* ez zuen lan ikusgarriarik egin, eta nabari zaio oraindik ez dagoela sasoi-ko harri txikiekin jarduteko. Joan zen igandean Igeldoko Harriarekin saio aipagarria egin zuen, eta badirudi atzo nekatu samar zela, edo, bestela, ez zuela gehiegi behartu nahi izan.

Bost harri-jasotzaile aritu ziren lehian Mallabiko (Bizkaia) pilotalekuan, Unai Arestik ez


SAILKAPENA

1. Izeta II.a	89 jasoaldi (49+40)
2. Izeta III.a	83 jasoaldi (48+35)
3. Urpe	70 jasoaldi (39+31)
4. Unai Barinaga	56 jasoaldi (33+23)
5. Jon Arriaga	43 jasoaldi (27+15)

parte hartzea erabaki baitzuen, han izan zen arren. «Buruko mina jartzen zait kuboarekin jardunda, eta bolarekin antzeko lana denez, nahiago izan dut ez lehiatu», esan zuen atzo. Bi harri erabili zituzten, 100 kiloko zilindro zaharra eta 100eko bola, bakoitzarekin bost minutuko txandak eginez.

Izeta II.a bosgarren jardun zuen, eta iaz baino lau jasoaldi gutxiago egin zituen zilindroarekin (49 jasoaldi). Bolarekin, berriz, iaz adina (40 jasoaldi). Anaia Jexuxmarik laugarren jardun zuen, eta iazko marka aise ondu zuen. Zilindroarekin bost jasoaldi gehiago egin zituen (43) eta bolarekin hiru gehiago (35 jasoaldi).

Bernardo Ureta *Urpe*-k iaz ez zuen esku hartu, eta orain bi urte baino 9 jasoaldi gutxiago egin zituen. Unai Barinagak eta Jon Arriagak lehen aldia zuten Mallabiko Sarian.



KOLDO ALDUNTZIN

Izeta II.a, 100 kiloko bola bizkarrean duela, Mallabiko saioan.